

Donostia, 2023ko abuztuaren 16a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udaltzaren Araudi Organikoaren dagokion artikulua babesean, honako ARAU PROPOSAMEN hau aurkezten dio **Udal jabari publikoa erabiltzeari dagokion tasak arautzeko Zerga Ordenantza aldatzeko proposamenari**, Udaltzaren eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onar dezan:

1. artikulua

Udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko zerga ordenantzako ERANSKINEKO 2) puntuan, BIDE PUBLIKOETAKO ETA ERABILERA PUBLIKOKO GAINERAKO LURPEKO APROBETXAMENDUA izenekoan, c) atala (Lurzoruaren Aprobetxamendu Berezia) aldatzea, jarraian zehaztutako gehikuntza-ehunekoak aplikatuta:

- % 5, 1., 2. eta 3. kale-kategoriei dagozkien terrazei.
- % 3, 4. kale-kategoriei dagozkien terrazei.
- % 1, 5. eta 6. kale-kategoriei dagozkien terrazei.

Justifikazioa

Kalearen kategoria kontuan hartuta, proportzionalki handitzea terrazak helburu ekonomikoetarako erabiltzeak dakarren espazio publikoaren okupazioa.

2. artikulua

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.

Victor Lasa Briz.
Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea